



zerbikas^{en}
gidak
4

**ikasketa eta
zerbitzu solidarioa:**
ekiten ikastea,
erkidegoa zerbitzatzen

_ Rafael Mendia





aurkibidea

1. Autonomia eta ekimen pertsonalerako gaitasuna	4
2. Nola ikasten eta garatzen den gaitasun hori	6
3. Ereduzko hiru gaitasun	7
4. Ekiten ikasteko ekimenak	9
5. Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa eta ekiten ikasteko gaitasuna	10
6. Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa gizartea aldatzeko hezkuntzako zeregin gisa	13
7. Zein da talde hezitzailearen zeregina?	15
8. Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa: esperientzia ekintzaile bat	17
9. Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa: gizarteko ekintzailetasuna adin guztietan	19
10. Baliabide dokumentalak	20





Zerbikas Fundazioaren gida praktikoen bildumako tresna berri honek **IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA** hurbildu nahi gaitu, ekiten ikasteko gaitasunaren ikuspegitik abiatuta.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa hezkuntzako proposamenak ondo egituratutako proiektu bakar batean biltzen ditu batera ikasteko eta erkidegoa zerbitzatzeko prozesuak, eta, horrela, parte-hartzaileek prestakuntza hartzen dute ingurunean dauden benetako beharrianak lantzean, ingurune hori hobetzeko asmoz.¹

Prozesu horretan, ekimen eta autonomia pertsonalarekin zerikusia duten osagai garrantzitsuak jartzen dira abian, hala nola, sormena, lidergoa, arazoak konpontzea, plangintza eta antolakuntza eta abar. Era berean, erkidegoari zerbitzua egiteko alderdiak zuzeneko lotura du jendetasunarekin eta herritarren gaitasunarekin, bai eta ikasten ikastearekin ere; hortaz, hiru gaitasun horiek hezkuntza-prozesuaren erdiko muina eratzen dute.

Bestalde, garapen pertsonala lortzeko eta ikasteko funtsezkoak diren beste gaitasun-mota batzuk ere jartzen dira abian, besteak beste, komunikatzeko gaitasuna, gaitasun digitala eta bizitzan barrena ikasteko oinarritzekoak diren gainerako gaitasunak.

¹ Centre Promotor d'Aprenentatge Servei de Catalunya

1 AUTONOMIA ETA EKIMEN PERTSONALERAKO GAITASUNA

Autonomia eta ekimen pertsonalerako gaitasunaren bidez, pertsonak gai izango dira banakako nahiz taldeko ekintzak edo proiektuak irudikatzeko, abiarazteko, garatzeko eta ebaluatzeko. Eta, hori guztia egiteko, sormen, konfiantza, erantzukizun eta zentzu kritikoa bezalako irizpideak hartuko dituzte kontuan. Gaitasun honek lotura estua du ekiten ikasteko prozesuarekin. "Ekiteko" gaitasuna dela ere esan daiteke, edo "ekintzailetasuna" bestela, hitz horiek erabiltzen baitira ekiteko ekintza eta ondorioa adierazteko.

Gaitasuna aztertuta, garapen pertsonala lortzeko duen garrantzia nabarmentzen duten zenbait osagai zehaztu ditzakegu; izan ere, hari esker, pertsona gai da ideiak ekintza bilakatzeko, zenbait gaitasun garatuz, esate baterako, sormena, berrikuntza, arriskuak hartzea, plangintza eta proiektuak kudeatzea.

EKITEKO GAITASUNA ALETZEN

Gaitasun kontzeptuak bere baitan biltzen dituen osagaiak garatuz era egokian moldatuko gara bizitzan eta ezin hobeki egokituko gara gizartera.

Gaitasuna duen pertsonak badaki helburutzat dituen zereginak ondo egiten, eta zeregin horiek egin nahi ditu eta egin ahal ditu. Era horretan, ekiteko gaitasunari dagokionez, baliabide aski jarri behar ditugu eskuragarri, hurrek eta nerabeek alderdi hauek bereganatu eta garatu ditzaten:

- Ekintza berriei heltzeko behar diren **ezagutzak**; hau da, jakitea: nola aztertu errealitatea, nola prestatu egin nahi den proiektuaren plangintza, nola antolatu baliabideak, eta –beharrezkoa bada– nola eratu gauzatuko den zereginari garrantzia emango dion antolakuntza-motaren bat. Hori guztia egiteko, gainerako oinarrizko gaitasunekin zerikusia duten edukiak ikasi behar dira: matematika, informatika eta abar.
- Behar den motibazioa lortzeko ezinbestekoak diren **jarrerak eta balioak**, hau da, nahi izatea: norberaren onura gainditu dezaten eta gizartea hobetzeko lagungarriak izan daitezen lortu nahi izatea. Hobetzeko nahia bultzatzen duten jarrerak, balio inklusiboak, gizalegezkoak eta solidarioak sustatzen dituztenak.
- Enpresa berriak ekiteko gai izan daitezen baliagarriak diren **trebetasun psikosozialak**; hau da, ahal izatea: ahalmen eta potentzialtasun pertsonalak ezagutzeari lotuta dauden trebetasunak, azterketa kritikoa eta pentsamendu sortzailea, gizarteko trebetasunak, arazoak eta gatazkak konpontzea, erabakiak hartzea, emozioak kudeatzea...

Nabaria denez, osagai horiek guztiak modu erabilgarrian garatu behar dira, ikasketa garrantzitsua lortu ahal izateko.

Ekintzailea

Ekintzaileak gaitasuna du bere ingurunea era kritikoan aztertzeko, eta, era horretan, ingurunean ikusten dituen mugak, zailtasunak edo arazoak eraldatu ahal ditu, eta garapen pertsonala eta soziala lortzeko aukera bilakarazi.

Uste osoa du bere buruarengan, aldaketa lortzeko duen ahalmenean, eta motibatuta dago aldaketa hori erabakitazunez egiteko. Balorazio ona egiten du bere gaitasunei buruz, arriskuak hartzen ditu bere gain eta erabaki egoiak hartzen ditu. Ez du beldurrik akatsak onartzeko, era onuragarrian txertatzen baititu bere bizipenen artean, eta, haren ustez, egindako hutsuneetatik ezer ez ikastea da porrota.

Autonomia eta ekimen pertsonala izateko gaitasuna garatu ahal izateko, prestakuntzako ibilbide bat egin beharra dago: gazte-gazterik hasi behar da, eta bizitzako hainbat alditan garatu behar da, era askotako bizipenetan, ekimenetan eta jarduteko esparruetan.

Ekintzailetasunaren kontzeptua, normalean, negozioren munduko imaginario sozialari lotuta egoten da. Hala ere, gaitasunak barne hartzen ditu pertsonak garatzeko

baliatzen dituen alderdi guztiak. Izan ere, abian jartzen dugu autonomia hainbat arlotan garatzen dugunean: arlo pertsonalean, familiarrean, herritarren arloan, gizartekoan, politikoan, sindikalean eta komertzialean, besteak beste.

Enpresa hezkuntzako taldeetan

“Enpresa” kontzeptua ez da berria eskolaren esparruan, ezta hezkuntzako astialdiaren arloan ere. Hala ere, gaur egungo ikuspegia, hau da, “ekiten ikasteko” ikuspegia, berria da. Ikuspegi desberdin horrek gaitasunaren asmoak garatzen ditu bizitzan barrena dauden ikasketako prozesuetan, gazte-gaztetatik hasita.

Hezkuntzako astialdiko instituzioetan, tradizioz, “enpresaz” hitz egitean, abentura gisa aipatu da, egoera bati heltzeko taldeko proposamen gisa, hezkuntzarako ahalmena duen taldeko proiektu gisa. Azken batean, enpresa ekimen gisa hartu da, pertsona-multzo bati aukera ematen baitio egoera bat taldeka aldatzeko, garapen pertsonala lortzeko, gizartea eraldatzeko eta erkidegoa zerbitzatzeko.

Horrela ulertutako enpresa bat garatzeko, aurrez, hezkuntzako taldeak bere burua prestatu behar du, egingo den prozesuaren bidez aurreikusita dauden helburuak lortuko direla bermatze aldera.

2 NOLA IKASTEN ETA GARATZEN DEN GAITASUN HORI

Autonomia eta ekimen pertsonalerako gaitasuna ikasteko, hezkuntzako ibilbidean barrena ekintzaileen esperientzietan parte hartu behar da. Hala eskolako gunean, nola hezkuntzako astialdian.

Hezkuntzako taldeak gidatutako eta bideratutako benetako esperientziak, bizitza pertsonaleko, eta eskolako, familiako eta herritar bizitzako hainbat alderdiri lotutakoak.

Jakina denez, gaitasunen ikasketak adierazgarria izan behar du, eta funtzionaltasunaren oinarriari jarraitu behar zaio. Gaitasunak ezin dira modu “teorikoan” ikasi; ekintza-hausnarketako prozesuak gauzatu ikasten dira.

Esperientzia horien bidez hau lortuko dugu:

- Proiektuak egokituko dira, haurren eta nerabeen garapen pertsonal eta sozialeko mailaren eta gaitasunen arabera.
- Benetako proiektu pertsonalak planifikatu eta prestatuko dituzte, beren bizitzarekin zerikusia duten proiektuak.
- Denbora eta zereginak antolatuko dituzte.

- Motibazioa eta autoestimua edukiko dituzte.
- Gainerako pertsonen ideiak balioesten, eta haiekin hitz egiten eta negoziatzen ikasiko dute.
- Egindako akatsetatik ikasiko dute.

Ekiten ikasteko gaitasuna ez da berez hartzen, oinarri-zko gainerako gaitasunetatik bereizita. Gainerakoak bezala, zeharkako gaitasuna da. Ez dago ikasketa-arlo zehatz batzuei loturik; haietako guztiei dagokie, eta haiek guztiak behar ditu.

Gaitasun honen garapenak erreferente argia du diziplina arteko proiektuak diseinatzeko, planifikatzeko, beteazterazteko eta ebaluatzeko prozesuaren esparruan.

Bera abian jartzeko, bizitza pertsonalei edo familiarrei loturiko esperientziak baliatu daitezke, eta, era berean, ingurune hurbilenean egin daitezkeen hobekuntzak azter daitezke, edota zerbitzuak egin ahal zaizkio erkidegoari.

Kontua da gizartean baliagarriak diren esperientziak garatzea, haurrak eta nerabeak protagonista nagusitzat hartuta. Esperientzien bidez, ikasketa-maila handiagoa behar duten eta gero eta konplexuagoak diren egoerak konpondu nahi dira.

Hezitzaile bakoitzaren banakako apustuek garrantzi handia dute. Hezkuntza aldeko ahalmena handiagoa izango da, esperientzia instituzioek egindako apustu bat bada eta ikastetxe osoak batera gauzatu nahi duen proiektu baten barruan sartuta badago.

Aurrez, hezitzaileak arazo hauek hartu behar ditu kon-tuan, besteak beste:

- Taldea sakon ezagutu behar du.
- Hainbat esparrutan egon daitezkeen interesak zehaz-tu behar ditu.
- Baliabide egokiak eduki behar ditu.
- Ikuspegi teknikitik hainbat "zeregin-mota" edo ere-du garatu behar ditu.
- Ikasketa-planarekin lotu behar du, hau da, ikasketa-arloekin eta ikasgaiekin, edota ikastetxearen curricu-lum-proiektuan eta hezkuntzako astialdiko taldearen hezkuntza-proiektuan jasota dauden oinarrizko gai-tasunen alderdiekin.
- Bitartekoak ezarri behar ditu hezkuntzako prozesua-ren jarraipena egiteko.
- Hezitzailearen zeregina zehaztu behar du; hezitzai-leak laguntzeko zereginak beteko ditu, eta horiek gi-roa sortzearekin izango dute zerikusi handiena.

3 EREDUZKO HIRU GAITASUN

Autonomia eta ekimen pertsonalerako gaitasunak oso harreman estua du bereziki zeharkakoak diren beste bi gaitasunekin, hain zuzen ere, "jendetasunarekin eta he-rritar gaitasunarekin" eta "ikasten ikasteko gaitasunare-kin".

Haien bidez, erkidego zehatz batean aurkitutako beha-rrizanei aurre egin nahi dieten proiektu solidarioak gara-tu daitezke. Horrez gain, ikasketa bultzatzen dute, bizi izandako ekimen-arloko esperientziei buruz hausnartze-ko prozesua eginez.

Hala ere, gainerako guztien beharra du, hau da: komu-nikatzeko gaitasuna, gaitasun digitala eta zientifikoa, matematikoa, kulturala eta artistikoa; betiere, gaitasun horiei lotutako trebetasunak edo ezagutzak behar dituz-ten gaiei heltzen badie.

	AUTONOMIA ETA EKIMEN PERTSONALA	JENDETASUNA ETA HERRITAR GAITASUNA	IKASTEN IKASTEA
GAITASUNA	<p>Behar diren ezagutza praktikoez gain, kontzientzia hartu behar da, eta elkarri lotuta dauden balio, jarrera eta trebetasun pertsonal batzuk ezarri behar dira: erantzukizuna, jarraitutasuna, autoezagutza, autoestimua, sormena, autokritika, emozioen kontrola, hautatzeko, arriskuak neurtzeko eta arazoei aurre egiteko gaitasuna, eta berehalako asetasuna atzeratzeko eta akatsetatik ikasteko gaitasuna.</p>	<p>Haren bidez, bizitokiko gizartearen errealitatea ulertzen da, lankidetzan jarduten da, elkarbizitza egiten da, herritartasun demokratikoa gauzatzen da gizarte plural batean, eta, gainera, gizartea hobetzeko konpromisoa hartzen da. Hor, era askotako ezagutzak eta trebetasun konplexuak daude txertatuta; eta horiek aukera ematen dute parte hartzeko, erabakiak hartzeko, egoera jakin batzuetan nola jokatu hautatzeko eta egindako hauu berezien erantzukizuna hartzeko.</p>	<p>Trebetasunak eduki behar dira ikasketarekin hasteko eta ikasten jarraitzeko, gero eta era autonomoagoan eta eraginkortasun handiagoz, norberak dituen helburuen eta beharrezan araber.</p>
GAITASUNA DUEN PERTSONA	<ul style="list-style-type: none"> • Beraren gaitasunen arabera egokitzen ditu proiektuak. • Akatsetatik ikasten du. • Proiektu pertsonalak planifikatzen eta prestatzen ditu. • Denbora eta zereginak antolatzen ditu. • Motibazioa eta autoestimua ditu. • Gainerako pertsonen ideiak balioesten, eta haiekin hitz egiten eta negoziatzen daki. 	<ul style="list-style-type: none"> • Egungo gizartearen aniztasuna eta izaera ebolutiboa, eta sistema demokratikoaren ezaugarriak eta balioak ulertzen saiatzen da. • Zereginak egiten ditu era kritikoan eta logikoan hausnartu ahal izateko era askotako gertakizunei eta arazoei buruz. • Zereginak egiten ditu errealitatea aztertzeko dauden ikuspegi desberdinez jabetzeko. • Lankidetzara garatzen du jarduten duen esparruetan: ikastetxean, erkidegoan, familian... • Esku hartzen du irakaskuntza-ikasketako prozesuetan, eta parte hartzen dituen erakundeek eta eskolak egiten dituzten prozesuetan. • Gizarteko trebetasunak erabiltzen ditu gatazkak modu eraikitzailean konpontzeko. • Desberdintasuna balioesten du eta eskubideen berdintasuna onartzen du, batez ere gizonen eta emakumeen artean. 	<ul style="list-style-type: none"> • Berak dituen gaitasunez ohartzen da (adimenezkoak, emoziozkoak eta fisikoak). • Informazioak planifikatzen, antolatzen, laburbiltzen, kontsultatzen eta produktu batean sartzen ikasten du. • Oroimena, arreta eta gogoak biltzea sustatzen du. • Galderak egiten dizkio beraren buruari, edo era askotako erantzunak zehazten eta erabiltzen ditu. • Informazioa eraldatu eta ezagutza bihurtzen du, norberaren ezagutza. • Ezagutza eta gaitasun berriak antzeko egoeretan eta era askotako inguruneetan ezartzen ditu

4 EKITEN IKASTEKO EKIMENAK

CHANGEMAKERS GAZTEAK (ASHOKA)

Ashoka mundu-mailako elkarteak ideia berritzaileak aurkitzen ditu eta dirua inbertitzen du haietan, hain zuzen ere, gizarteko ekintzaileek egiturazko aldaketa iraunkorrak bultzatzeko garatzen dituzten ideietan. Hauxe da haren goiburua: "Denok alda dezakegu mundua". Haren lanaren ardatza "changemakers" edo aldaketaren sustatzaileak bultzatzea da.

Ashoka elkartearen ustez, gizarteko ekintzailea hauxe da: gizarteko arazoei erantzuna ematen dieten irtenbide berritzaileak garatzeko eta abiarazteko ikusmena, sormena eta erabakitasuna dituen pertsona.

Gizarte-arloko ekintzaileak konpromisoa hartu du bere ikuspegiarekin, eta ez du atsedetik hartzen harik eta errealtatean ikuspegia gauzaturik ikusten duen arte. Proposatzen duen irtenbidea lantzen du, probak egiten ditu, zuzendu eta doitu egiten du, harik eta gizartea aldatzeko duen proiektua gauza dadin lortzen duen arte.

"Jóvenes Changemakers" Ashoka elkartearen ekimen baten izena da, eta gazteen gizarte-arloko ekintzailetasuna bultzatzen du Espainian. Aldaketa eragin nahi duten gazteen nazioarteko mugimendu bati loturik dago, eta gazte horiek uste dute beren eskuetan dagoela beren inguruneak hobetzeko erantzukizuna. Laguntza, sareak eta tresnak eskaintzen dizkiete mundua hobetzeko ideiak gauzatu nahi dituzten 14 eta 20 urte arteko gazteei.

VALNALÓN EDUCA

"Valnalón educa" proiektuak bi erreferente garrantzitsu ezartzen ditu autonomia eta ekimen pertsonalerako gaitasuna garatzeko: "Jóvenes emprendedores sociales" (JES) eta "Emprender en mi escuela" (EME) izeneko hezkuntzako proiektuak.

JES, Espainiako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako ikasgela bateko ikasleek garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakunde bat eratu behar dute. Bete beharreko prozesua benetako elkarte bat eratzeko antzekoa da erabat. Ezaugarri horiek dituzten GKE guztiek bezala, JES elkarteak kontrako alderdi bat dauka: Hegoko herrialde batean adin bereko ikasleek eraturako elkarte bat. Elkarrekin bilduta, finantziazioa biltuko dute.

EME hezkuntzako programa Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. Parte hartzen duten ikasleek kooperatiba bat sortu eta kudeatu behar dute, eta hor egiten dituzten produktuak urtean behin saldu behar dituzte beraien herriko azokan. EME izeneko proiektu hori lagungarria da hainbat gaitasun garatzeko, zehazki, komunikazio, ingurune fisikoaren azterketa, sormena, elkarbizitza eta herritartasuna, eta alfabetizazio digitalarekin zerikusia duten horiek. Metodologia proiektuetan oinarritzen da, eta ikasleek ikasgelan duten parte-hartze benetakoa eta eraginkorra da abiaburua. Ikasleek hartuko dituzte erabakiak, eta dagozkien arriskuak hartuko dituzte beren gain.

5 IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA, ETA EKITEN IKASTEKO GAITASUNA

Kataluniako APS zentroak ikasketa-zerbitzuaren ondoko definizioa ematen du, eta, gehienetan, gure ingurunean onartu egiten da: “Hezkuntzako proposamen honek ondo egituratutako proiektu bakar batean biltzen ditu batera ikasteko eta erkidegoa zerbitzatzeko prozesuak, eta, horrela, parte-hartzaileek prestakuntza hartzen dute ingurunean dauden benetako beharrianak lantzean, ingurune hori hobetzeko asmoz.”

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren Latinoamerikako Zentroko zuzendaria den María Nieves Tapiak honela definitzen du: “Zerbitzu solidario bat da, bertan ikasleak dira protagonistak, eta beharrian zehatz batez arduratu nahi du, ahal dela, erkidegoak duen beharrian batez, hezkuntzako kalitatearen arabera eta ikasketako edukiekin era egituratuan planifikatuta dagoen beharrian batez.”

IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA, ETA ESPIRITU EKINTZAILEA GARATZEA

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren ekimenek batera biltzen dituzte beren baitan proiektu ekintzaile batek bete behar dituen osagaiak, eta autonomia eta ekimen per-

sonalerako gaitasuna garatzeko funtsezkoak diren osagaiak.

Bestetik, letaZS proiektu bat garatzeko prozesuan, erduzko taldea osatzen dutenek duten adinaren arabera, ekimen ekintzaile bati dagozkion hainbat alderdi pizten dira, hala nola, ekimena, sormena, konpromisoa, lidergoa, etorkizuneko ikusmena, autokonfiantza, arriskuak hartzeko gaitasuna, iraunkortasuna eta pentsamendu baikorra.

Bestalde, jendetasun eta herritar gaitasunari dagokionez, prosozialitatea pizten dute, hau da, kanpoko saririk bilatu gabe, beste pertsona edo talde batzuentzat edo gizarteko beste helburu batzuentzat lagungarriak diren eta, orobat, pertsonen arteko edo gizarteko harremanetan elkarrekikotasun onuragarria, kalitatezkoa eta solidarioa sortzeko aukerak handiagotzen dituzten jarrerak pizten dituzte, tartean sartuta dauden pertsonen edo taldeen nortasuna, sormena eta ekimena babestuta.

letaZS ekimenak abian jartzen dituzten hezkuntzako prozesuak garatzeko, harremanetan jarri behar da erkidegoan eraginkorrak diren eragileekin eta gizartea aldatzeko lanean sartuta dauden erakundeekin, eta lankidetzan jardun haiekin.

Era horretan, sinergiak sor daitezke, eta ikastetxearen edo astialdiko hezkuntzako taldearen “kapital soziala” aberastu ahal da, bai eta ikasleena edo taldea eratzten duten bestelako lagunena ere.

Gazteen kapital soziala zera da: pertsonen arteko konfiantza, elkartzeko gaitasuna, gizalegezko kontzientzia eta herritartasun demokratikoa bezalako balioetan oinarrituta dauden esperientzien multzoa.

IetaZS GAITASUN EKINTZAILEA GARATZEKO EMAN DITUEN LAGUNTZA BEREZIAK

Oso zaila da gaitasun bat oro har –eta, bereziki, gaitasun ekintzailea– garatzeko behar diren osagaiak modu teorikoan bereganatzea.

Ezagutzak

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko esperientzia bat benetako ingurunean garatzeak aukera ematen du irakatsi nahi diren ezagutzak testuinguruan jartzeko, eta erabilgarritasuna emateko. Hala, bada, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak hautabide bat eskaintzen du ikasketa adierazgarriak lortzeko.

Hori lagungarria izango da ikasleen motibazioa pizteko, ikasten dutena benetan ulertuko baitute, eta, horrenbestez, beste eduki batzuekin ere lotu ahal izango baitute.

Trebetasunak

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektuak egiteak hainbat trebetasun psikosozial ikasteko aukera ematen

digu, hain zuzen ere, ekintzailetasunari lotuta dauden baina azalpen teorikoaren bidez benetan ezin bereganatu daitezkeen trebetasunak: Zertarako balio du sormena zer den jakiteak, praktikan gauzatzen eta garatzen ez bada? Zailtasunak eta arazoak konpontzen ikasteko erarik onena ez al da arazo horiei benetan heltzea?

Errealitatea aztertzeko, ekintza planifikatzeko, eta gauzatu eta ebaluatzeko beharrezkoak diren trebetasun guztiak era praktikoa landu ditzakegu. Trebetasun horiek guztiak ezinbestekoak dira edozein proiekturi ekiteko, eta zuzen lotuta daude autonomia eta ekimen pertsonala izateko gaitasunarekin.

Balioak

Aztergai dugun gaitasunean batera biltzen diren balioek zerikusia dute ekintzailetasunarekin (konpromisoa, iraunkortasuna, konfiantza edota erantzukizuna) eta gizarteko arazoekiko sentikortasunarekin (bestetasuna, elkartasuna, zuzentasuna eta zintzotasuna).

Ezinezkoa da balio horien benetako balioa bereganatzea definizio teorikoaren bidez. Balio horiek ulertzeko, funtsezkoa da bizitzea, egunero gauzatzea, eta, are garrantzitsuagoa dena, gure eraikuntza pertsonalean barne hartzea.

Autoestimua garatzea

Ekintzaileen baitan aurkitzen ditugun ezaugarri guztien artean, badago bat bereziki nabaria dena: autoestimua, norberak dituen trebetasunei eta gaitasunei buruzko uste ona.

Pertsonak bere buruari buruz egiten duen balorazioa da autoestimua. Ingurunearekiko harremanen eta esperientzien bidez eratzen da, eta, hor, zeregin garrantzitsua betetzen dute pertsona adierazgarriek.

Beste pertsonak edo ingurune zehatz bat hobetzera zuzendutako jarduerak egiten ditugunean, gure ereduak eta ekintzen onura zuzena jasotzen duten bestelako pertsonak balorazio eta onarpen ona egiten digute.

Gure bizitzako ibilbidea esperientzia onuragarrien bidez eraikitzen da pixkanaka, eta horrek aukera ematen digu autokonfiantza eta gure harremanekiko konfiantza arian-arian garatzeko, akatsak eta egoera zailak gainditzeko ikasiz.



6 IetaZS GIZARTEA ALDATZEKO HEZKUNTZAKO ZEREGIN GISA

Zerbikas Fundazioaren aurreko gida praktikoetan, zehatz deskribatu dugu Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko proiektu bat diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko prozesua.

Era berean, “Elkarteentzako koaderno praktikoak” argitalpenean, borondatezko pertsonen taldeek material interesgarria aurkitu dezakete proiektuak eta lanak egiteko; argitalpen hori boluntariotzako web gune honetan dago ikusgai: www.boluntariotza.net.

Argitalpen berri honen bidez, beste urrats bat egin nahi dugu aurrera, autonomia eta ekimen pertsonalerako gaitasuna lantze aldera. Horretarako, sakon aztertu nahi ditugu aintzat hartu behar diren alderdi garrantzi batzuk.

Motibazioa

Motibazioa pizteko prozesua desberdina izango da, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren ikuspegia duen proposamena egiteko hartzen den abiapuntuaren arabera.

Erkidegoan garrantzia duten pertsonak gonbidatu ahal ditugu, bisita egin ahal diegu taldeei edo erakundeei, argibideen joko bat egin dezakegu taldeak Interneten

bilaketak egin ditzan erkidegoarentzat arazotsuak diren egoerei buruz: ingurumenari dagokionez sentitu eta bizi izan dituzten beharrizanak, arreta pertsonalak, beste pertsona batzuek dituzten beharrizanak, edo erkidegoko bizitzan sumatzen diren gabeziak...

Gero, lehentasunak finkatuko ditugu antzemandako beharrizanetan, eta aldaketak sorrarazteko ditugun benetako aukerak aztertuko ditugu.

Hautua

Motibazio ona izatea oso lagungarria da hautaketa egokia egiteko. Proiekturik edo ekintzarik onena bera gauzatu behar duten pertsonak hautatzen duten horixe izango da. Are gehiago, hori izango da benetako arrakasta izango duen bakarra.

Hautaketa hainbat modutara egin daiteke, betiere, hautatuko dena ondo zehaztuta eta aurrez argituta dagoela zaindu ondoren. Horretarako, proiektuak eta kezkek hurbildu behar ditugu, ahalegina egin behar dugu gutxiengoek dituzten ideiak tartean sartzeko, eta ahalik eta partaidetzarik handiena sustatzen duten proiektuak landu behar ditugu.

Irakasleek edo hezitzaileen taldeak laguntza ematen dute motibazioa pizteko aldiaren azaltzen diren proiektuak berriaz formulatzeko, eta bilerak dinamizatzen dituzte, haien alde onak eta txarrak aztertzeko, ikasketa-planeko arlo-

kin duten harremana ikusteko eta proiektu bakoitzaren bidez landu nahi diren gaitasunak zehazteko.

Lan egiteko plana

Hiru koordenada hauek zehazten dute proiektuaren edo ekintzaren garapena: zereginek, espazioak eta denborak.

Bilera edo batzar orokor batean, taldeak lortu nahi dituen helburuak zehaztuko dira, azken proiektua eratuko duten zereginak xehakatzen dituzten helburuak.

Gero, tailer bakoitzean, gainerako tailerrek ondo eza-gutuko duten lan egiteko plan bat eratuko da. Horrela, erraztu egingo dira taldeen arteko komunikazioa eta proiektuak dituen baterako helburuen aldeko lankidetzak.

Ekintza gauzatzea

Hala, beraz, aurreko urratsak garrantzitsuak dira, baina prozesu osoa egiteko arrazoia erkidegoaren alde egin nahi dugun ekintza edo ekintzen multzoa garatzea da.

Tailerrak edo lan-taldeak ekintza baino lehenago egin daitezke, baina ekintza egiten den aldi berean ere gauzatu daitezke.

Proiektua ebaluatzea

Taldeak berak lana ebaluatzen ez badu, gure lana osatu gabe geratuko da. Bi mailatan ebaluatu behar da:

- Alde batetik, taldeak berak ebaluatuko du, liderrek eta hezitzaileen taldeak dinamizatuta. Ebaluazio honen bidez, kontzientzia hartuko da ekintza eraldatzaileari buruz, ikasitako guztiari buruz eta beste pertsona batzuegan sortutako onurei buruz.
- Bestetik, hezkuntzako taldeak ere ekintzaren garapena ebaluatuko du. Taldeak alderdi hauek balioetsiko ditu: tartean dauden oinarrizko gaitasunak eskuratzeari eta ikasteari buruzko aldeak eta horrek ikasketa-arloekin duen zerikusia, eta, era berean, gutxiago landu diren alderdi teoriko-praktiko batzuk sakontzeko beharrezana. Ildo horretan, komenigarria da laburpen bat prestatzea eta informazio gehiago eskaintzea, ekintza garatzean nork bere baliabideak erabiliz lortutako informazioaz gain.



7

ZEIN DA TALDE HEZITZAILEAREN ZEREGINA?

Hezkuntzako taldeak nola egin dezake laguntza? Hezitzaileak taldearen esanetara egongo dira oinarrizko bi zeregin hauek egiteko:

- a) Ezagutzen dituen gaitan aditua den aldetik, nahita lotu beharko ditu irakatsi nahi dituen ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak egingo den Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioko esperientziarekin.
- b) Pertsonen arteko esperientziaren sustatzailea den aldetik. Taldea osatzen duten pertsonen adina eta heldutasun pertsonala eta soziala kontuan izanik, esku hartzeko jarraibide batzuk daude; horien bidez, taldea haziz eta helduz joango da pixkanaka, ekintza garatu bitartean.

Hezkuntzako taldea:

- Taldeari laguntzen dio esperientzia egin bitartean, eta bere bizipenak eta gatazkak adierazten dizkio taldeari.
- Gaia ondo bideratzeko ahaleginak egiten ditu, bidetik atera gabe.
- Taldeak onartutako prozedurak bete daitezen zaintzen du.
- Laguntza ematen du laburpena egiteko.

- Trukeak ziurtatzen ditu, eta arautzeko eginkizuna betetzen du, pertsona guztiek hitz egiteko aukera izan dezaten bermatzeko.
- Berriz formulatzen du dena.
- Guztiak asebate gabe gaiak urtzen hasten direnean, berriz aztertzen ditu; eta gai horiek berpizten saiatzen da, hizkera berria erabiliz.
- Zehazten eta argitzen du, gaia barreiatu ez dadin.
- Eztatanda antolatzeko laguntza ematen du, eta lana errazten du zati bateko laburpenak eta azken laburpenak prestatzeko, hala prozeduretan, nola edukietan..

LIDERGOA SUSTATZEA

Ikusi dugunez, lidergoa da ekintzaileek duten bereizgarrietako bat. Pertsona hauek era proaktiboan prestatzen dituzte beraien bizitzetara zentzua ematen dieten ekimenak.

Beraien bizitzako proiektuak eraikitzen dituzte, formalismoak eta gizarteko ohituraz egiten diren gogogabeziak bazter utzita, horiek bizitzeko modu eroso eta pasiboetara eramaten baikaituzte.


Lidergoa sustatzeko hezkuntza landu nahi badugu, garrantzizkoa da hezkuntzako taldeak laguntzailearen zeregina jokatzea, hau da, galderak eta zalantzak konpondu beharrean, horiek mahai-gaineratzeko eta itzultzeko ardura duenaren lana betetzea.

Jarrera paternalistetatik urrundu behar dugu, eta haurrek eta nerabeek dituzten ahalmenez eta gaitasunez fidatu beharra dugu. Era horretan, ekimena eta konfiantza aski lortuko dute, esperientzia behar bezala burutzeko eta etorkizunean beste mota bateko zereginak garatu ahal izateko.

Lidergo demokratikoa

Normalean, izaera onuragarria aitortzen diogu lidergoari. Hori era kritikoan aztertzen badugu, berriz, ondo oharreko gara ez dela horrela. Historian barrena izan diren lider edo buruzagi askok kezka gehiago hartu dute beren onura eta ospea lortzeko, guztion onura eskuratzeko baino.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak harreman zuzena du balio gizalegezkoak eta solidarioak garatzeko lanarekin; eta, horrenbestez, estrategia egokia da lidergo-mota zehatz bat eraikitzeko, hain zuzen ere, lidergo demokratikoa eta prosoziala, erkidegoarentzat onuragarria dena eta pertsona guztien ahalmena garatzeko lan egiten duena.



8 IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA: ESPERIENTZIA EKINTZAILEA

HERRIKO MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATUZ

Irungo Toki Alai BHIko heziketa-taldeak urtero egituratzen du herritartasunerako hezkuntza irakasgaia, garapen praktikoa osatu dadin. Horrela, herriko elkarte eta erakundeekin lankidetzan, ikasleei inguruko beharrezan gainean esku hartzeko aukerak eskaintzen dizkiete.

Une horretatik aurrera, neska-mutikoez egingo duten esperientzia aukeratu eta egituratzen dute, proiektuaren protagonista bihurtuz. Ikastetxe horretako geletako batek Irungo ondarearen zati bat berreskuratzeko xedea zuen jarduera bat aukeratu zuen: beraien institututik gertu zegoen eta erortzeko zorian zegoen gaztelu zahar baten historia ikertu zuten.

Lan hori egin eta plazaren deskribapen xehea prestatu ondoren, Udalarekin koordinatu ziren, kokapenaren seinaleztapen osoa egiteko, prozesuan zehar diseinatu zituzten panelekin. Proiektu honen garapenak komunikazio, plangintza eta talde laneko trebetasunak sustatu ditu, izan ere, trebetasun horiek nekez eskuratu zitezkeen gela batean teorikoki garatuz.

DERIOKO GAZTEEK IKASTETXE BAT HOBETZEKO LANETAN PARTE HARTU DUTE SAHARAN

Bizkaiko Derio herriko Txorierrri Bigarren Hezkuntzako Institutuko neska-mutilak konboi batekin batera joan dira Sartaldeko Saharako Tindufeko kanpamentura, materialak eramatera.

Bidaia horren xedea “Said Sgyer” eskolako instalazioak eta hezkuntzako eskaintza hobetzea zen, 500 neska-mutil joaten baitira eskola horretara.

Euskal Herriko gazteek brotxak eta pintura eraman dituzte, eta, horiek erabiliz, ikastetxeko instalazio guztiak eraberritu dituzte. Era berean, laguntza eman dute ordenagailuz eta laborategiz hornitutako ikasgela bat prestatzeko, eta eguzki-plakak jaritzeko. Laguntza horri esker, ikastetxeko azpiegitura nabarmen hobetu da, eta, harrez gero, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabil ditzakete han.

Errefuxiatuen kanpamentuan lan egiten izan duten elkarbizitzako esperientzia baliagarria izan zaie, eta, horrenbestez, hausnarketa egin ahal izan dute errefuxiatuen egoeraz, basamortuko bizitza-baldintza gogorrez. Bestalde, Sartaldeko Saharako biztanleek bizitzeko duten moduz ikasteaz gain, “lehenengo munduan” bizitzea abantaila handia dela ohartu dira.

Proiektu horren plangintza egiteko eta abiarazteko lana oso esperientzia erabilgarria izan zaie hainbat arlotan, hala nola, kudeaketan, taldeko lanean, frustrazioari aurre egitean edota arazoak eta gatazkak gainditzeko prozesuan. Horren bidez, gazte horiek ikasketa baliotsuak eskuratu eta sartu ahal izan dituzte beren baliabideen artean. Horrenbestez, ahalmen gehiago izango dute gizartean eta etorkizuneko lan-munduan moldatzeko.

KOOPERATIBA SOLIDARIO BAT ADINEKOEI LAGUNTZEKO

“Hesirik gabe bizi” izeneko proiektuak laguntza eman nahi die auzoko adinekoei, beraien etxebizitzak oraingo eta etorkizuneko beharrezan araberako egokitu ahal izan ditzaten.

Hori lortzeko, kooperatiba esperimental bat antolatu dute. Horrela, Lanbide Heziketako ikastetxeko hainbat kidek beren gaitasunak landu ahal izan dituzte proiektuan: plangintzako sailek, administrazio eta merkataritza sailek eta sail teknikoak hainbat ekintza egin dituzte, baterako proiektuari jarraiki.

Oso esperientzia baliotsua izan da; alde batetik, kooperatiba bat eratzeke eta abiarazteko prozesua landu da, enpresa bat izan balitz bezala; eta, bestetik, egin den zerbitzua oso baliagarria izan da auzoko adinekoentzat. Jakina, eskura egon den diru bakarra auzoko hainbat instituziok proiektua gauzatzeko jarri dutena izan da.

ELIKAGAIEN BANKUAREKIN LANKIDETZAN

Bartzelonako 80 ikastetxetako baino gehiagoko ikasleak, Fundación Banc dels Aliments-ekin batera, lankidetzan aritu dira “Haz que todos lo podamos celebrar” izeneko kanpainan, Elikagaien Munduko Eguna dela-eta.

Kanpainaren bidez, gazteak sentikor bihurtu nahi dira, Bartzelonan elikagaien arloan dauden gabeziez, gizartearen dirua xahutzeko dagoen joeraz eta Bancs dels Aliments fundazioak hiri horretan egiten duen zereginaz.

Zerbitzu egiteko jarduera horren bidez, kanpainan parte hartzen dutenek eskolako curriculumak lantzen dute, hain zuzen ere,

kontsumoko gizartea, zuzentasunaren arloan dauden zuloak edo erakunde solidarioak ezagutzera emanaz. Era berean, beren larrutan bizi dezakete elkartasunak duen balioa, eta hori baliagarria zaie oinarrizko zenbait gaitasun hobetzeko.

AZOKA TXIKI SOLIDARIOA IKASTETXE BATEAN

Egoerarik kaxkarrenean dauden herrialdeek bizi duten pobrezia-egoera aztertu eta sakontzeko helburuarekin, Lazkaoko San Benito ikastolako ikasleek egoera hori hobetzeko nola kolaboratu zezaketen eta herritarrak gai horren gainean nola sensibilizatu zitzaizketen aztertu zuten.

Horretarako, lehenik eta behin, herrialde horien kokapena, kultura eta egoera sozioekonomikoa aztertu zituzten, munduan den ekitate ezaren arrazoi desberdinak ikertuz. Bidezko merkataritzak herri jakin batzuei laguntzeko ekar ditzakeen abantailak aintzat hartzean, asteburu batean merkataritza mota horretan oinarritutako azoka solidario bat antolatzeko erabakia hartu zuten, garapenerako lankidetzako zenbait GKEren lankidetzarekin.

Ekimen honetan, munduko geografia, soziologia eta ekonomia-ekin erlazioatutako ikasketez gain, bereziki nabarmentzen dira akordioak lortzeko, helburuak zehazteko, zereginak planifikatzeko eta horiek garatzeko behar ziren epeak zehazteko orduan garatu behar izan zituzten komunikazio, negoziatio eta antolaketa trebetasunak, bai eta ekintzaitzaren kulturarekin eta beste pertsona batzuekiko elkartasunarekin erlazioatutako balioak ere.


9 IetaZ: GIZARTEKO EKINTZAILETASUNA ADIN GUZTIETAN

Erkidegoari zerbitzu egin nahi dion ekintzailearen espiritua adin guztietan garatu daiteke, hala Haur eta Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko –nahiz derrigorrezkoa ez den– Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean, nola “bizitza osoan barrena dauden ikasketako” prozesuetan.

Aldi bakoitzean lortutako heldutasun-maila kontuan izanda, adin guztietan azter dezakegu ingurune hurbila, zehaztu ditzakegu beharrianak, ekin diezaiokegu irtenbideak bilatzeari, hauta dezakegu erantzuteko modu bat, eta abian jarri, eta, geroago, ebaluatu dezakegu, hezitzaileen laguntzarekin.

Hezkuntzako prozesuaren aldi guztietan, curriculumeko ikasketak bereganatu ditzakegu, eta erkidegoa eraldatzeko egokiak diren hezkuntzako prozesuekin lotu ditzakegu. Era berean, ikasketak eskura daitezke hezkuntzako astialdiko taldeetan, gazteen taldeetan, edota gizarte- eta kultura-izaera edo gizarte- eta erkidegoizaera duten taldeetan.

Izan ere, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren funtsa, azken batean, hauxe da: ekimena eta sormena, konpromisoa, lidergoia eta etorkizunerako ikusmena, autokonfiantza eta arriskuak gainean hartzeko ahalmena garatzea, eta, orobat, jarraikitasuna eta pentsamendu baikorra lantzea, erkidegoari onura egiteko ekintzetan sartuz, horiek baitira ekintzailearen espirituaren bereizgarriak.



IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOARI BURUZKO LIBURUAK

- Fundación SES (2009). *Servicio Juvenil Integral. Experiencias de Compromiso y Aprendizaje*. Buenos Aires. Fundación SES.
- Martín, X. eta Rubio, L. (2007). *Experiències d'aprenentatge servei*. Bartzelona. Octaedro.
- Martín, X. eta Rubio, L. (2010). *Prácticas de ciudadanía. Diez experiencias de Aprendizaje-Servicio*. Bartzelona. Octaedro.
- Martínez, M. (2008). *Aprendizaje-servicio y responsabilidad social de las universidades*. Bartzelona. Octaedro.
- Puig, J. M.; Batlle, R.; Bosch, C. eta Palos, J. (2006). *Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía*. Bartzelona. Octaedro.
- Puig, J. M. (2009). *Aprendizaje y servicio. Educación y compromiso cívico*. Bartzelona. Grao.
- Tapia, M. N. (2006). *Aprendizaje y servicio solidario*. Buenos Aires. Ciudad Nueva.

OINARRIZKO GAITASUNAK GARATZEARI BURUZKO LIBURUAK

- Bolibar, A. (2008): *Ciudadanía y competencias básicas*. Bartzelona. Grao.
- Johnson, D. eta Johnson, R. (1999). *El aprendizaje cooperativo en el aula*. Bartzelona. Paidós.
- Marina, J. A. eta Bernabeu, R. (2007). *Competencia social y ciudadana*. Bartzelona. Editorial Grao.
- Martín, E. eta Moreno, A. (2007). *Competencia para aprender a aprender*. Bartzelona. Grao.
- Perrenoud, P. (2005). *Diez nuevas competencias para enseñar*. Bartzelona. Grao.
- Puig, J. M. eta Martín, X (2007): *Competencia en autonomía e iniciativa personal*. Madril. Alianza.
- Sanmartí, N. (2007). *Evaluar para aprender*. Bartzelona. Grao.
- Serramona, J.:(2004). *Las competencias básicas en Educación Obligatoria*. Bartzelona. CEAC

Zabala, A. eta Arnau, L. (2007) *11 ideas clave. Cómo aprender y enseñar competencias*. Bartzelona. Grao..

GIDAK

- Rubio, L. (2008). *Zerbikas Gida 0: Ikasketa eta zerbitzu solidarioen sakelako gida*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa.
- Puig, J. M.; Martín X. (2007). *Zerbikas Gida 1: Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioen proiektu bat*. Bilbao Zerbikas Fundazioa.
- Hernández, C.; Larrauri, J.; Mendia, R. (2009). *Zerbikas Gida 2: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa eta oinarrizko gaitasunak garatzea*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa.
- Mendia, R; Moreno, V. (2010). *Zerbikas Gida 3: Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa, gizarteratzeko estrategia*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa
- Mendia, R. (2011). *Zerbikas Gida 4: Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa: ekiten ikastea, erkidegoa zerbitzatzen*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa.
- Puig J. M. (2010). *Com fer APS en els Centres Educatius?* Bartzelona. Centre Promotor d'Aprenentatge Servei.
- Puig J. M. (2010). *Com fer APS en les Entitats Socials?* Bartzelona. Centre Promotor d'Aprenentatge Servei.

WEB ORRIAK

- Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak era seguruan eta osasungarrian erabiltzeko: www.cibermanagers.com (Euskal Herria).
- ASHOKA, gizarteko ekintzaileak. www.ashoka.es/ (nazioartekoa)
- Centre Promotor d'Aprenentatge Servei: www.aprenentatgeservei.org (Katalunia)
- CLAYSS (Centro Latinoamericano de Aprendizaje y Servicio Solidario): www.clayss.org (Argentina)
- Learn and Serve America's: www.servicelearning.org (AEB)
- National Youth Leadership Council: www.nylc.org (AEB)
- Hirugarren Sektorearen Behatokia: www.tercersector.net (Katalunia)
- Valnalón Educa: www.valnaloneduca.com (Asturias)
- Boluntariotzaren web orria: www.boluntariotza.net (Euskal Herria)
- Zerbikas: www.zerbikas.es (Euskal Herria)



BILBAO • Indautxu kalea 9, behea

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN • Bizkaia Pasealekua 15-16, behea

VITORIA-GASTEIZ • Errege Atea 20, behea

© Edizio honi dagokiona: **Zerbikas Fundazioa**

ISBN: 978-84-9726-619-2 • D.L.: BI-690-2011

Eskubide guztiak gordeta

Diseinua: Álvaro Pérez Benavente / www.estudionuvola.es

Itzulpena: Labayru

Laguntzailea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



fundazioa
zerbikas

ikasketa eta zerbitzu solidarioa
aprendizaje y servicio solidario